

## **DIRU-ITURRIAK**

ZitzTool zerbitzua aurrera eramateko inbertsio bat egin beharko zen, eta horretarako, lehenik, mailegu bat eskatu beharko litzateke. Diru hau banku bati eskatuz edo beste enpresa batekin elkartuz lor genezake. Lehenik, bankuari mailegua eskatu beharko diogu; gero gure zerbitzuaren tresnak eskuratzen laguntzen digun enpresa batekin aliantza bat sortuko genuen. Eskatutako diru guztia, gure enpresak irabaziak eman heinean itzuliko zen.

Gure zerbitzua aurrera eramateko hainbat gastu edukiko ditugu. Lehenik, beharrezkoa ditugun kutxatilak, poltsak eta xurgagailuak erosiko ditugu, eskatutako maileguaren zati baten laguntzaz eta egindako aliantza kontuan hartuz. Poltsak Txinatik erostea erabaki dugu, bertatik esportatzea oso merkea delako beraz diruaren %0,2-a erabiliko dugu horretarako. Kutxatilak lortzeko, *taquillas-sim* enpresarekin kontaktuan jarri gara, bere kutxatilak saltzeko eta gure zerbitzura egokitzeko eta horretarako dugun diruaren %30,46-a erabiliko dugu. Xurgagailuak aldiz, guk diseinatuko ditugu eta *Elekrolux* markakoak izango dira; honek kostu handia izango du, beraz, %30,46 erabiliko dugu hau aurrera eramateko. Zerbitzua irekitzeko, publizitatean ere %0,19 gastatuko dugu, jendeak, gure enpresaren ZitzTool-en inguruan informazioa izan dezan. Azkenik, %1,06 gordeko dugu aurreikusi gabeko gasturen bat izanez gero erabiltzeko edo konponketa bat egin behar ezkerro. Beraz, gure zerbitzua erabiltzeagatik 15€ kobratuko dugu.

Hasiera batean, gure aurrezkiekin eta ingurukoen laguntzaz baliatuko gara gure produktuari hasiera emateko, eta mailegu bat eskatu diogu bankuari. Ondoren, ditugun irabaziak mailegu hori itzultzeko erabiliko dira. Mailegu honek, interes batzuk edukiko ditu, hau da bankuak tasa bat ipiniko digu dirua eskatzeagatik. La Caixan esate baterako, %2,3ko interesa eskaini digute eta ikusi dugu, diru gutxi eman behar diogula mailegua bueltatzeaz gain. Gainera, bankuak berak, min-kredituak eskaintzen ditu, eta ekintzaitza bultzatzeko “*Obra Social La Caixa*” proiektua aurkeztu digute. Aurretik aipatutako maileguak, guk aurrez adostutako plazoetan bueltatuko dugu, hamar hilabeteetan zehazki. Beraz, eskatu dugun maileguak interes finkoa izango du, hau da, interesa aldatu arren, gure mantendu egingo da, horrela ez dugu gehiago ordaindu beharko igo egiten bada.

Hau dela eta, ZitzTool-eko kide garenok, ez dugu soldatarik izango lehenengo urtean eskatu dugun mailegua ordaintzeko.